

noaua



DANTZARIAK, PLAZARA

Larunbat honetan ospatuko da Usurbilgo XIV. Dantza Eguna / 8-9 or.

NOAUA

"Feministok autodefentsan jarraituko dugu"

Usurbilgo Mugimendu Feministak elkarretaratze bat antolatu zuen aurreko larunbatean / 17 or.



NOAUA

Datorren ikasturtean 42 plaza eskainiko dira Haur Eskolan / 06




NOAUA

Herritarrek erabakiko dute jaietako txupinazoa nork botako duen / 10




NOAUA

Igande honetan, bertso-ibilaldia Txokoalden eta Aginagan barrena / 20



MARKEL KORTA

Markel Korta, eskaladako Espainiako Koparen gailurrean / 22



FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE...•ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



Turkia

IRTEERA 2026ko iraila



Noaak gidatutako
talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 · info@noaa.eu · Hipodromo Etorbidea, 10 · Lasarte-Oria

Bertso-ibilaldia Usurbilgo sagar eta sagardoaren kultura eta paisaian barrena



APIRILAK 26, IGANDEA

Aginagako plazan, 10:00etan

Izen ematea: www.650usurbilbizi.eus web orrian

Hizketako gaiaren gidaria
Jakoba Errekondo

Bertsolariak
Maialen Lujanbio
Andoni Egaña



Sagaria eta
Sagardoaren
Kultura eta
Turismoa
**BIZI
SAGARDOA**



Alkartasuna Kooperatiba Atallu industrialdea 26, Usurbil 943 361 114 www.alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com

Kuadrilla ederra tipi-tapa, Usurbildik Arantzazuraino

Giroa ez zen atsegina, bai-na erronka bete eta beste urte batez hamarkada luzeetako ohitura berritu zuten apirilaren 2an irudiko protagonisten. Usurbildik Arantzazurainoko 63 kilometroko bidea osatu zuten oinez. Goizaldeko 4:00etan abiatu ziren Mikel Laboa plazatik, lagunarte ederrean.

Helmugan, ohitura hau sustatzen hasitako herrikide

beterano zenbait batu zaizkie aurtengoan ere.

Andatza Eguna, maiatzaren 3an

Arantzazuko ibilaldiaren ondotik, beste txango baterako proposamena duzue lerrotan, askoz hurbilago. Izan ere, ate joka dugu maiatzeko lehen igandea. Hilaren 3an izango dugu bueltan Andatza Eguna.



Helmugan ibilaldi honetako beterano batzuk batu ziren.

Garbigunea Aginagan izango da astebetetz

Apirilaren 23an Mikel Laboa plazatik Aginagara lekuz aldatuko du Usurbilgo Udalak garbigune mugikorra eta han izango dute astebetetz, Zubietara eraman aurretik.

Igande hau, hilaren 26a izango da, bestalde, hurrengo errefus bilketarako eguna.

Erregularizazioari buruzko informazio bilera

Apirilaren 27rako antolatu du Udalak, 18:00etan Potxoenean. SOS Arrazakeriak-eko Mikel Mazkianek gidatuko dusaioa, euskaraz eta gazteleraz. Espainiako Gobernuak migratzaileentzako ezohiko erregularizazio prozesu bat abiarazi du, eta horren inguruko xehetasunak eskainiko dira bertan.

1968koak Atxegan batuko dira, apirilaren 25ean

Udaberriari kinto bazkari ugari ospatu ohi dira. 1968an jaiotakoak apirilaren 25ean elkartuko dira, Atxega jauregian. Ordaindu beharrekoa, 50 euro, eta prezioaren barne daude bazkaria eta ondorengo Djsaioa. "Jarri kontaktuan Bego edo Anarekin, edo 1968ko whatsappean dagoen edozeinekin".

"63an jaiotakoak bazkaria egingo dugu elkarrekin"

"63koa bazara eta etorri nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: (667296328, Jone) edo (690346480, Pili). Animate!"

- Noiz: Maiatzaren 16an, larunbata, eguerdiko 14:00etan.
- Non: Atxega jauregian.
- Izena emateko azken eguna: Apirilaren 24a.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzardea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Apaiz arrunt baten gutuna

2026ko Goya sarien gala otsailaren 28an ospatu zen. Ohi den bezala, galaz baliatzen diragure herriko kultura panoramatik kanpo dauden zenbait kausa erreibindikatzeko. "Palestina libre" protestekin batera, Eliza katolikoari buruzko adierazpen aldrebesak ere entzun ziren guztien ahotan zegoen "Los Domingos" pelikula zela eta, non 17 urteko neska gazte batek (Blanca Soroa) klausurako moja izateko asmoa agertzen duen. Niri asko gustatu zitzaidan film hori. Sekulako garaipena izan zuen gau horretako sari kategoria garrantzitsuenetan.

Beste irain-hitzen artean, galako aurkezle eta aktore Silvia Abrilkesan zuen: "Gazteriaren gabezia eta kristau joera hori ezin dut onartu. Zerbait sinetsi beharrak eta kristau erlijioari lotze horrek pena ematen dit. Elizarengatik sentitzen dut, baina azertxosna muntatu duzuen", dio aktoreak.

Patxi Bronchalo auzo bateko parrokoa da ('un cura del montón' gisa definitzen da bera) eta gazteen fedeari eta Elizari buruzko gutun bat idazten dio Silvia Abrili. Eskutitza, Francisco Javier deitzen dela esanez hasten du. "Apaiz arrunt bat naiz eta Madrilgo auzo batean bizi eta lan egiten dut, Leganosen hain zuzen. Nire egunerokoan ez dago ez fokurik, ezta makillajerik ere; hemengo bizitzan ez dago itxurakeriarik. Askok sufritzen duen jendeari eskaintzen natzaio, etorkizunik ikusten ez duenari esperantza apur bat ematen saiatzen naiz", dio. "Nire

kideen antzera, laguntza eskatzen didan orori mesede egiten ahal gientzen naiz".

"Apaiz arrunt honek" kontatzen dio aktoreari, duela hilabete batzuk infartuz hil zen berrogeita hamar urteko gizon baten hileta ospatu zuela eta nola saiatu zen hildakoaren familiari esperantza apur bat ematen. Egun batzuk pasata, alarguna eskerrak ematera etorri omenen zitzaion bere hitzek bakarrik eman ziotelako itxaropen izpi bat. "Nirekin etorri behar zenuen tanatoriora", esaten dio aktoreari.

Gutunaren bigarren partean Silvia aktorearen beste esaldi bati erantzuten dio: "Sentitzen dut Elizarengatik. A zer txosna muntatu duzuen". Patxi Bronchalok (honela deitzen da "apaiz arrunta") erantzuten dio berritri, esanez: "Badakizu? Ni nagoen auzo honetan ez dago alfonbra gorriarik eta ez da galariarik ospatzen"; baina pozik sentitzen da eta parrokiako "txiringitora" gonbidatzen du. Astebete bat pasatzera etortzeko esaten dio, horrela bisita ditzake gaixoak, beren semeek inoiz bisitatzen ez dituzten amen istorioak entzun edo "drogarengatik edo alkoholarengatik semeak galdu izanaren zauriarekin" bizi diren gizonenak ere entzun ahal izango ditu. Caritasko boluntarioei lagun diezaieke etorkinei janaria banatzeko uanean. Horrela entzungo lituzke beren istorioak eta beraiekin partekatut bere "fede errezetak".

Apaizaren ustez, gazte asko kristau federa itzultzen ari bada,

arrazoia da "gauza pilo batez inguratuta hazi direlako, baina biziaren zentzuz hutsik". Dene-tik jaso dute, baina garrantzitsuena ukatu diete. "Sinetsi beharra dute, zeren bizitza sakonki aztertzen dute eta ez dira konforme eskaini zaien horrekin".

Patricia Pardo, Mediaseteko aurkezleak ideia berdintsuak agertzen ditu; Bronchaloren gutuna sinatuko luke nire ustez. Bere esanetan, "espiritualtasuna ez da gabezia edo hutsune bat betetzeko beharra, sendotasuna baizik eta arimarentzat babesa. Ohorea da kristau izatea eta nire nortasunaren zutabea". Silvia Abrili egiten dion kritikan, bere amakesaren ziktion hitzak gogorazten dizkio: "Fedea eta maitasuna ez dira ezkututzen". Patriziaren ustez, Abril aktore-saren diskurtso hori "eszeptizismoa maila intelektual handi baten sintoma gisa aldarrikatzen dutenen topiko bat besterik ez da". Patxi Bronchalok Parrokiara bisitatxo bat egitera etor dila esaten dio aktoreari, fokue-tatik urrun, horrela entzun ditzake jendearen arazoak. Bere alde errezatuko duela esanez amaitzen du eskutitza.

**"ESPIRITUALTASUNA
EZ DA HUTSUNE BAT
BETETZEKO
BEHARRA, BAIZIK
ETA BABESA
ARIMARENTZAT"**

Santuenean, datorren "Goazen kalera"

Astearteroko ibilaldi osasuntsuetan hurrengo, apirilaren 28an izango da, Santuenean. 10:30etan abiatuko da bertako frontoitik, Udarregiko ikasleekin. Udalekimenaren amaieran, Atalluko OLH-ko sukaldaritzako ikasleen hamaiketakoak datatu ahal da. Gogoan izan, taxi zerbitzua eskaintzen da ekimen hau egin ohi den auzoetara, goizeko 10:15ean Lau-rok liburu-denda parean.

1960an jaiotako topaketa

Maiatzaren 23an elkartuko dira, eguerdi partean, Atxega jauregian. Izen-ematea maiatzaren 10era artekoa izango da, telefono zenbaki hauen bidez:

Mila: 670 906 417.

Marije: 676 855 612.

1952an jaiotako topaketa

Maiatzaren 9an izango da, Andatza tabernan (Egurtzegin), 14:00etan. Izena alde aurretik eman behar da: 620 516 715 (Javier).

Sareren mobilizazioa

Sarek ostiral honetarako deituko du, euskal preso, iheslari eta deportatuaren etxeratzea galdegiteko elkarretaratzea, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ANDATZA TABERNA

8:00 - 21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00 - 22:30 Osteguna eta igandea
8:00 - 23:30 Ostirala eta larunbata

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK



Kalezar Auzoa 12, 08, USURBIL. Tel 943 73 20 27

943 361182
EROSKI / city
kale Nagusia 10, USURBIL

IKA-MIKA

Noiztik bizi gara presaka?**JUANJO LERTXUNDI**

Azken urteotan, askok sentsazio bera dugu: bizitza azkarregi doala. Eguna betebeharez betetzen zaigu, batetik bestera gabiltza etengabe, eta ia konturatu gabe ohitzen gara presaka bizitzera. Batzuetan, gelditzea bera ere kostatzen zaigu.

Kanpotik dena normal dirudi. Lanean, etxean edo kalean, bakoitzak bere erritmoari eusten dio. Baina barruan nekea pilatzen joaten da. Ez

da beti neke handia edo ikusgarria; askotan neke isila da. Lo egin arren pasatzen ez dena, atsedean hartu arren, guztiz arintzen ez dena.

Ohitu egin gara beti erabilgarri egotera, beti erantzutera, beti iristera. Eta horren erdian, geure burua entzuteko tartea galtzen dugu. Noiztik ez dugu lasai gosaldtu? Noiztik ez dugu paseo bat eman presarik gabe? Noiztik ez dugu isiltasuna benetan bizi?

Agian arazoa ez da egiten dugun guztia. Agian arazoa da ez diogula

geure buruari gelditzeko baimenik ematen. Geldialdia alferkeriarekin nahasten dugu, eta atsedena erruarekin. Baina gelditzea ez da denbora galtzea; askotan, geure buruarengana itzultzeko modua da.

Bizitza azkarregi doanean, batzuetan nahikoa da gelditzea. Geure buruari galdetzea ea benetan horrela bizi nahi dugun. Izan ere, agian ongizatea ez dago gehiago iristean, baizik eta gelditzen ikastea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus

'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak**Igeldoko morroia**

Baserriz-baserripentsu-saltzen ibiltzen zen gizaseme batek negozioa bertan behera utzi behar izan du, nekazari-sindikatuari desfalkua egin ondoren.

Halako batean, 'z' ahoskatzeko arazoa duen Igeldoko baserri bateko morroiak hor ikusi du gizon horren anaia:

-Hi! Hire anaiak xer egin xian, kiebra edo arruianatu?

Nonbait, nahiko harroa anaia, eta zapla! garrondoan morroiari.


-Morroiak: Oxtia! Earra eman xaiak, baina earra aittu dik!

Igeldoko morroia II

Hor igo da Igeldora bere motor handiarekin ñonostiar bat harro-harro eta Pakoenea taberna parean gelditu da.

eginez etorri haizela eta... Besteok ere baxaukau Kajarroxen dirua eee!!!

'Z' ahoskatzeko arazoa duen Igeldoko baserri bateko morroiak: Hi xe ustek? Hik moto handiya daukakela eta burrummm-burrrummm



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Usurbilgo Udalak deituta, udaleko eta Partzuergoko ordezkariak martxoaren 24an Sutegin eginiko bilera.

Haur Eskolan matrikulatzeko garaia

Maiatzaren 8ra arte zabalik izango da, 2026-27 ikasturterako haur eskolan matrikulatzeko epealdia. Udarregi ikastolan bideratu beharko da, Gernika ibilbidea 11n. "Familiek izen ematea Usurbilgo Udalaren eskaera inprimakia betez egin ahal izango dute".

ARITZ LASARTE

Deialdia, 2025ean eta 2026an jaiotako haurren gurasoei edo legezko tutoreei zuzendua dago. "Maiatzaren 1etik 10era jaiotako haurrek maiatzaren 20ra arte eman ahalko dute izena", argitu dute Udaletik. Aldiz, "aurreko ikasturtean matrikulatuta dauden haurrek ez dute berriz ere eskaria egin behar, beren plaza automatikoki bermatzen baitzaie, betiere dauden haurreskolan eta ordutegian". Informazio gehiago, bideotatik jaso ahalko duzue: 943 36 12 16 telefono zenbakian edo haurreskola@udarregi.eus helbidean.

Beste ohar bat; tarte horretan matrikulatu ahalko dira, "2026ko irailean, ikasturtea hasten den egunean" haur eskola baliatu nahi dutenek. Gainerakoek, "ikasturtearen

zehar beranduago hasteko asmoa dutenek ezingo dute epe honetan izen eman eta ez zaie plaza erreserbarikegingo". Kasuotan, "2026ko irailetik 2027ko apirila bitartean partzuergoko haurreskoletan hilero irekiko da izen-ematea baldin eta plazak libre badaude". Horregatik, Udaletik ohartarazi dutenez, "ikasturtea hasita, haur eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian

**"42 PLAZA
ESKAINIKO DIRA:
16 0-1 URTE
ARTEAN, 26 1-2
URTE ARTEAN"**

gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza bermatu".

Partzuergora bidean

Gogoan izan, haur eskola Partzuergoan sartzeko bidean da udalerrihau. Aldaketarikezean, irailetik aurrera, bertan integratua eskainiko da zerbitzu hau, 0-2 urtekoentzat. Aldiz, oraindik egun, udal haur eskola izanik, aurtengo izen-ematea Udalak deitu du. Horrez

**"IRAILAREN 4TIK
31RA BITARTE
ESKAINI AHALKO
DU ZERBITZUA, 196
EGUNETAN"**

gain, Kalezarko eraikina eraberritzeko da Udala. Bitarte horretan, Agerialdeko eraikinean ari dira eskaintzen haur eskola zerbitzua. Paraleloki, haur eskola Partzuergoan integratzeko bidea jorratzen ari da udalerrihau. Otsailean udalbatzak eginiko osoko bilkuran erabaki zuten bertan sartzea eskatzea.

Horrez gain, martxoaren 24an zerbitzu berriari buruzko argibideak eskaintzeko bilera deitu zuen Udalak Sutegin. Udal eta Partzuergoko ordezkariekin elkartu ziren hainbat familia. Datorren ikasturtean, guztira, 42 plaza eskainiko ditu haur eskolak; 16 0-1 urte artean, beste 26 1-2 urte artean. "Hala ere, plaza horiek moldatu ahal izango dira sortzen diren beharrei erantzuteko", Udaletik ohartarazia dutenez. Gogoan izan, zerbitzu berria doakoa izango da.

Egutegiari dagokionean, irailaren 4tik uztailaren 31ra bitarte eskaini ahalko du zerbitzua, guztira 196 egunetan. Udalak, senideek eta hezitzaileek osatutako jarraipen batordeak adostuko du egutegia eta proposamena helaraziko dio Haurreskolak Partzuergoari. Ordutegia ere zehaztua dute. Gehienez jota zortzi orduz egon ahalko dira haurrak. Horren baitan, bi ordutegi mota eskainiko dira:

- a) Goizeko ordutegia: 7:30etik 14:00ak arte (haurren sarrerak 7:30-9:30 eta irteerak 13:00-14:00).
- b) Egun osoko ordutegia: 7:30etik 16:00ak arte (haurren sarrerak 7:30-9:30 eta irteerak 15:00-16:00).

Haurrei, hilero gutxienez %80ko asistentzia eskatuko zaie. Lehen aldiz bertaraturiko haurrak "hamar laneguneko egokitzapenaldia beteko du gutxienez, haurreskolarekin adostutako orduetan". Haur eskola zerbitzu berriari buruzko informazio gehiago, usurbil.eus/eu/haur-eskola udal atarian jaso dezakezue.



Hil Arte Bizi egitasmoaren sortzaile Nere Erkiaga izan zen "komunitatetik, heriotzaz" zikloaren lehen saioko hizlaria.

Heriotzaren tabua arrakalatzen

"Komunitatetik, heriotzaz" aritzeko Usurbilgo Udalak eragile gehiagorekin antolatutako zikloa abiarazi dute asteazken honetan, apirilaren 15ean Sutegin. Gaiari buruzko ezagutzaz aritu zen Hil Arte Bizi egitasmoaren sortzaile Nere Erkiaga. Maiatzaren 7an, hurrengo hitzordua.

ARITZ LASARTE

Denok biziko dugun heriotzaren aurrean hobeto nola kokatu, ziklo aldaketa hori prestatzeko sarritan falta zaigun ezagutzaz aritu zen hilaren 15ean Sutegin, Hil Arte Bizi egitasmoaren sustatzaile Nere Erkiaga, Udalak eragile horrekin nahiz gehiagorekin antolatutako "komunitatetik, heriotzaz" zikloaren baitan. Norbere nahiz besteen heriotza kudeatzeari zegokionean hizlariak argi adierazi zuenez, "hau hobeto egin daiteke". Horretarako, ezinbestekotzat jo zuen, "heriotza bizitzan" txertatzea. Bere esanetan, heriotza ez baita bizitzaren aurkakoa, jaiotzarena baizik. Gaiak eragin ohi duen beldurrari maitasunetik heldu diezaiogegu. "Heriotzak maitasuna

adierazteko ematen duen botereaz" kontzientziatzeko gonbita egin zuen Erkiagak. Izan ere, heriotzak sentiarazten digunari buruz ari garenean, "maitasuna da nukleoan dagoena, beldurraren eta minaren artean". Argi denez, "mina ezin da ezabatu". Are gehiago, "maitasunak sortzen du mina"; hil denak mina eragiten badigu, hil dena "maitatzen dugulako da". Baina minaren eragilea den maitasunak beldurra arintzen lagundu dezake era berean. "Maitasunak lagundu dezake beldurra uxatzen, pixka bat bederen", Erkiagak Sutegin adierazi zuenez. Hiru beldur mota bereizi zituen: batetik, heriotzari diogun beldur naturala, "kendu ezin dena eta ezabatu behar ez dena"; eta,

bestalde, landu beharreko beste bi beldur mota; "haurtzaroan bizitakoagatik heriotzaren aurrean norbera ezgauza uzten duten" beldur traumatikoak eta gudan, botere handia izaten segitzen duten eraikitako beldurrak.

Amaierari aurre hartzea

Hori guztia kudeatzeko, argi zioenez, iraganean "helduleku asko izatetik" baliabidegabeziara eta ezagutzaren kultura faltara igaro gara. Horretan dihardu liburutegien arloan, artxibo lanetan jarduten hasi eta tanatologia ikasketak egiten amaitutako Erkiagak. Hil Arte Bizi egitasmoa abiarazi zuen, "heriotzaren jakintza zabaltzeko". Informazio gehiago nererkiaga.eus helbidean jaso dezakezue.

Bere ustez, norbere heriotza prestatzerakoan, kontuan hartu beharrekoa da, jakitea has-teko zein den "gure era" eta "alor bakoitzean herritar bezala ditugun eskubideak" eza-gutzea, gerora "hartu ditza-kegun erabakiak ikusteko". Esaterako, ondasunekin zer egin, bizimoduan zehar utzi-tako arrasto digitala nola nahi dugun kudeatua izatea, gor-puarekin zer egin, zer nolako agurra izatea nahi genukeen, noiz eta zer nolako amaiera izatea nahi genukeen erabaki. "Zein da gure duintasunaren marra?", egin zuen hausnar-ke-tarako galdera gisa. Horre-kin batera, noski, hau dena, ingurukoekin partekatzea eta hitza jartzearen garrantzia azpimarratu zuen eta hitza jartzea erabakitzea bai, baina norekin, noiz, nola... "Komu-nitatetik, heriotzaz" zikloko lehen saioak berrogeitik gora lagun elkartu zituen Sutegin. Gaiaren izaera ikusita, deial-diak izandako parte hartzea nabarmendu eta eskertu zuen bai Erkiagak baita antolatze lanetan jardundako Udalak ere. Sutegiko auditoriora joan-dakoei dagokienean, hil oste-ko kudeaketak eragin zituen galdera edo jakinmin gehien edota norbere heriotzari aurrez aurre begiratzearen onarpenaz ere jardun zuten. Agerian utzi zuen saioak, gai honen eza-gutzan sakontzeko dagoen beharra eta kultur horren he-dapenean komunitateak izan dezakeen rol garrantzitsua. Hurrengo saioa hilaren 7an, 18:00etan Sutegin; "heriotzak gaztetasuna kolpatzen due-nean" izenekoa, herrikide hainbaten lekukotzekin.

**"MAITASUNA DA
HERIOTZAREN
NUKLEOAN
DAGOENA,
BELDURRAREN ETA
MINAREN ARTEAN"**



"Aitaren Gutuna" emanaldiko parte hartzaileak, iragan larunbateko Agerialdeko frontoiko entsegu saioan.

"Atera kalera, dantzara. Nahieran, baina dantzatu!"

Dantzaren Usurbil izango dugu larunbata, Orbeldik hamalagarrenez prestaturiko jaialdiarekin. Lerroburuan nabarmendu moduan, dantzan plazaratzeko gonbita egin digute apirilaren 25erako. Goizetik gauera, mugimendu biziko egitaraua osatu dute.

ARITZ LASARTE

Talde barruan nahiz ate joka dugun urteroko jaialdian, belaunaldiartekotasuna izaten dute haien jardunaren ardatz nagusietako bat; oraingoak, ordea, garrantzia are nabarmenagoa izango du. Orbeldik, beste behin, plaza hartu eta dantzara gonbidatu gaitu larunbaterako, apirilaren 25erako antolatu duen jaialdian. Erromerietan murgiltzeaz gain, dantza ikusteko aukera izango da goiz partean belaunaldi gazteenak eskainitako 7. Dantzari Txiki topaketaren bidez. Ikusmina sortu izan ohi du baita, gau parterako sortu ohi duten ikuskizunak. Aurtengo sorkuntza lanaren estreinaldiak "Aitaren Gutuna" izena du.

"Geratzeko sartu gara"

Belaunaldiartekotasunean ardaztua egongo da istorioa bera eta hala nabarmendu da baita emanaldiaren eraikitze prozesuan ere, erreleboa gertatu baita ikuskizunaren sorkuntzan. Lehenbiziko aldiz, Dantza Eguna lehen ediziotik eta haien haurtzarotik bizitako hirukote berri bat sartu da

"UDAN, PROPOSAMEN ZAPARRADA BATETIK SORTU ZITZAIGUN SAIORAKO IDEIA"

emanaldi horren gidaritzat taldean; Irati Indakoetxea eta Uxue eta Garazi Mindegia. "Geratzeko sartu gara", adierazi ziguten, urtero moduan, estreinatzearen duten herri ikuskizuna prest uzteko, iragan larunbatean, apirilaren 18an, goiz partean Agerialdeko frontoian eginiko entsegu saio orokorrean.

"DENON ARTEAN SORTUTAKO ISTORIO BAT DA EMANALDIKOA, DENON ARTEAN MOLDATU DUGU"

Aipatu hirukotea haurtzarotik dabil Orbeldin dantzan. Larunbateko jaialdia sorreratik bizi izan dute, hasieran ikusle moduan. Zirrara handiz, frontoiko lehen lerroan eserita ikusten zituzten Dantza Eguneko gau parteko lehen ikuskizunak. Orduetik herriko talde horretan bidea eginez segi izan dute, gau parteko ikuskizuneko ikus-entzule izatetik plaza hartu arte. Go-goan dute, noiz izan zuten herri mailako urteko ikuskizun seinatuenean parte hartzen hasteko aukera. 2019-20 ikasturtean izan zen. "Juxtu hasi behar genuen urtean, covid19ak eragindako osasun krisialdia etorri zitzaigun" eta urtebete geroago eskaini behar izan zuten emanaldi hura. Halere, oroitzen dutenez, "gu hasi ginen entseatzeko helduekin. Inpresio handia eragin zigun, bapatean helduen taldean sartzeak".

"Freskotasuna ekarri du"

Azken urteotan, Orbeldikoen emanaldi horretan aritu ostean, beste jauzi bat eman dute haien inplikazio mailan. Estreinakoz, aurtengo emanaldia, "Aitaren Gutuna" izenekoa sortu dute. Iazko udan izan zen, Míndegiatarrek azaldu bezalaxe. "Udan, proposamen zaparrada batetik sortu zitzaigun ideia. Luze geratu zen, egokitu genuen. Denon artean sortutako istorio bat da. denon artean moldatu dugu; kantak egin ditugu, istorioa egituratu...". Halakoetan ohikoa izaten den moduan, jatorrizko ideiak aldatetako izan ditu. "Abestiak hautatzerako orduan, letra jartzea pixka bat kosta zitzaigun. Aldaketa asko egon dira".

Emozio handiz bizitzen ari dira iazko udan hutsetik sortutako ideiak nolako itxura hartu duen. "Koreografia sortzen oso ondo pasa dute", adierazi digu Orbeldiko kide Eli Eizagirrek. Nabarmendu duenez, "kide berrien sarrerak, freskotasuna ekarri du" eta agerian geratu da, "jende sor-

→ tzaile asko" duela herri honek.

"Txikitatik dantza bizi izan dugu"

Hainbat bidelagun izan dituzte taldean; hasteko, noski, dantza taldea bera eta haiekin, ikuskizunari soinu-banda jarritako herriko musikariak, beste urte batez "lan piloa egin duten" jostunak... Dantza Eguna iragartzeko kartela Eider Makazagarena da. Gaueko emanaldian zehar entzungo den ahotsa, Gari Udaberena. Esker ona adierazi diete haien ekarpena egindako guztiei. Izan ere, auzolanean diharduen herritar talde handi baten emaitza izaten da Dantza Eguna bera, eta baita gau parteko ikuskizunaren estreinaldia. Haren onte prozesua gidatzen du Orbeldik eta haren baitan espresuki zereginotarako osatua den lantaldeak. Bertako kide dira lerrootako elkarrizketatuak. Horrez gain, belaunaldi gazteenari dantza irakasten dihardute. Urrats naturala izan da Indakoetxearentzat nahiz Mindegitarrentzat Orbeldi barruan eginiko bidea. "Txikitatik dantza bizi izan dugu, gure bizitzaren parte izan da. Beti eragin izan digu ilusioa. Urte osoa Dantza Egunaren zain izaten gara. Lehen gugatik egin zuten moduan, orain guri dagokigu besteengatik egitea. Taldean segiz gero, egindakoa ibilbide naturala da".

Belaunaldi gazteenari dantza irakasten dihardute. Egun, 80 bat gaztetxo inguru ditu Orbeldik. Gogotsu datoz, gainera. "DBH inguruan taldea mantentzen kostatzen izan den moduan, orain jarraikortasun bat izango dugula dirudi", Orbelditik adierazi digutenez. Belaunaldi horren lanketaren ispilu izango da larunbateko 14. Dantza Eguna. Izan ere, 7. Dantzari Txiki topaketan parte hartuko dute. "Guk hau bizitzen dugun emozioarekin bizi dute haiena. Haien unea bizitzeko aukera dute eta pla-



Uxue eta Garazi Mindegia, Irati Indakoetxea eta Eli Eizagirre, Orbeldiko kideak.

zan aritzen ohitzea ahalbidetzen die. Gainera, kanpoko taldeak datoz. Askok ahalegin-tzen dira, une polita izaten da".

Bizitzaz hausnarrean

Gaueko emanaldiaren antolakuntza lanean murgiltzeak aukera eman die ezagutzeko barrutik zer lan dagoen. "Desberdina da. Ez da ikusten zenbat lan dagoen. Bileretara joatean ikusten hasi ginen zer egiten zen antolatzeke. Ez dirudi baina ordu asko sartu behar dira, gauza piloa dago kudeatzeko. Hemen batzuk urte piloa doaz", nabarmendu dute.

Iragan larunbateko Agerialdeko frontoiko entsegu saio orokorrean aipatu zigutenez, "jada forma ona du" aurtengo emanaldiak. Horretan ere, Orbeldi alderik alde zeharkatzen duen belaunaldiarteko-

"LEHEN GUGATIK EGIN ZUTEN MODUAN, ORAIN GURI DAGOKIGU BESTEENGATIK EGITEA"

tasuna nabarmendu beharra dago. "17-70 urte arteko parte hartzaileak ditugu. Hori da gure potentzialtasuna", dantza taldetik azpimarratu dutenez.

Herriari aurkeztar duten ikuskizunari buruz galdetu diegu. "Aitaren Gutuna" emanaldiak ere belaunaldiartekotasuna, erreleboa badu mintzagai. "Aita batek hemezortzi urte betetzen dituen alabari kontatzen dion bizitzaren bueltako istorioa da. Alaba txikia zenean hil zen aita. Gutun bat idazten dio eta bidaia bat egiten du, aita esan diona deskubritzeko. Bizitzari buruzko hausnarketa bat da", aurreratu digute.

Momentuz, aurtengoa borobildu nahi dute lehenbizi, hurrengo ikuskizuna irudikatzen hasi aurretik. Orbeldi eta haren urteko dinamikara gerturatzeko aukera polita izan-

"UNE EZBERDINAK IZANGO DITUGU DANTZAZ GOZATZEKO. ATERA KALERA, DANTZARA"

go da larunbatean, haien esanetan. Haien gonbita, bi hitzetan, laburbildu daiteke; animatu dantzara. "Oso egitarau polita dugu egun osorako. Une ezberdinak izango ditugu dantzaz gozatzeko. Atera kalera, dantzara. Nahieran, baina dantzatu!".

14. Dantza Eguna

Apirilak 25, larunbata

11:30 VII. Dantzari Txiki. Talde gonbidatuak: Getariako Gure Txeru, Zarauzko Jalgi eta Lezoko Murixka. Kalejira udal-txetetik abiatuta.

13:00 Ekitaldi nagusia frontoian.

14:30 Herri bazkaria Askatasuna plazan.

17:00 Harkaitz Allur eta Maddalen Arzallus trikitilariak Artzabalen.

22:00 "Aitaren Gutuna" ikuskizuna frontoian.

Oharra: ikuskizunaren aurretik frontoian afaldu asmo dutenek, bertan egongo diren hondakinak biltzeko ontziak erabiltzea eskatu dute antolatzaileek.

Ondoren, Iratzar erromeria Mikel Laboa plazan.

Antolatzailea: Orbeldi D.T.

Laguntzailea: Udala.



Aurten, 600 eurokoa izango da lan irabazlearen egileak jasoko duen saria. Orain arte, 500 eurokoa zen.

Jaietako egitarauaren diseinua egiteko lehiaketa martxan da

Badatoz herriko festak. Bi hilabete eta erdi baino gutxiago geratzen dira, besterik ez, Usurbil jai giro betean murgiltzeko. Aurten, uztailaren 1etik 5era ospatuko ditugu.

Jai batzordea otsailean hasi zen prestaketa lanetan. Ordutik hona, jai egunak zehaztu eta egitaraua osatzen hasi dira.

Xehetasunak lotzen segitzen duten artean, Usurbilgo jai batzordeak beste urrats bat eman du orain. Izan ere, festei hasiera nork edo nortzuk eman erabakitzeke nahiz egitarauaren diseinua hautatzeko deialdiak plazaratu ditu.

Egitarauaren diseinu lehiaketa

Egitarauaren diseinua egiteko, testua Potxoenea Kultur Etxean jaso behar da edo emailaz eskatu kultura@usurbil.eus helbidean, eta testu horretan oinarrituta egingo da diseinua. Horretaz gain, Udalak adierazitako logoak ere jaso behar ko ditu.

Epaimahaia jai batzordeko bi kidek, diseinu arloan eza-

gutza duten bi kidek eta kultura zinegotziak osatuko dute.

Oinarriak Potxoenean eskura daitezke. Hauek dira aipagarrienak:

- Egitarauaren bi bertsio aurkeztu behar dira: euskarazkoa eta elebiduna.
- Elebiduna A4 formatuan aurkeztu beharko da: alde batean euskarazkoa eta bestean gaztelaniazkoa. Elebidunean, euskarazko testua nabarmendu egin behar da, adibidez, letra-tamaina handiagoa jarrita...
- Lehiaketa honetara norbanakoak zein taldeak aurkez daitezke. Lehiaketa publikoa eta irekia izango da. Lana originala eta argitaratu gabea izango da.
- Lanak euskarri digitalean (pendrive, PDF) eta paperean aurkeztu behar dira.
- Diseinu proposamena maiztaren 19a baino lehenago

erregistratu behar da udal erregistroan edo postaz bidali bestela, helbide honetara: Usurbilgo Udala Kultura Saila Jose Martin Sagardia Plaza z.g. 20170 Usurbil

Proposamenak postaz bidaltzen direnean, posta-bulegoan bidaltzen deneko data justifikatu beharko da, eta egun berean emaila bidaliko zaio udalari kultura@usurbil.eus helbidera.

- Lan irabazlea inprimatu arreretik egileak azken emaitza Kultura Sailarekin adostu beharko du.

Saria handitu du Udalak

Orain arte, lehiaketa irabazten zuen diseinatzaileak 500 euroko saria jasotzen zuen. Aurten, 600 eurokoa izango da lan irabazlearen egileak jasoko duena.

Jaietako txupinazoa nork botako du?

Herriko festak abiarazteko txupinazoa nork edo nortzuk jaurti, herritarrek erabaki ahalko dute beste urte batez. Jai batzordetik bi bide finkatu dituzte ekarpenak egiteko. Batek, telematikoki aurkeztu ahalko dira, kultura@usurbil.eus helbidean. Bestela, presentzialki jai batzordeak udal instalakuntza zenbaitetan jarritako kuxtetan sartu ahalko dira. Guneotan izango dituzue: udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta Potxoenean. Modu batean zein bestean, zuen hautagaia edo hautagaiak nortzuk diren zehaztu beharko duzue, baita zergatia ere.

Gogoan izan, iaz 40. urteurrena zuten Zumarte Musika Eskola eta Ziortza Gazte Elkarteak kideek izan zuten festei ekiteko ohorea.

Txupinazoa, azken 10 urteotan

- 2016 Dantza taldea.
- 2017 Hurbilago.
- 2018 Gaztain erretzaileen koadrila.
- 2019 Esther Arrojeria, Estitxu Berasategi.
- 2022 Odol-emaileen elkarte.
- 2023 Gazte mugimendua.
- 2024 Adineko emakume zaintzaileak.
- 2025 Ziortza Gazte Elkarte eta Zumarte Musika Eskola.
- 2026 ?.



Artzabalgo gazte lokalean bildu ziren, apirilaren 16an.

Arrobiltzarra, hurrengo urratsak definitzeko

"Egitasmoaren definizioan jarraitu eta hurrengo *arrobiekintzak* garatzeko" bilera deitu zuen Arrobitxulo elkarguneak apirilaren 16an Artzaba-

len kokaturiko gazte lokalean. Bilguneko kultur eta aisialdi eragileetako nahiz gazte mugimenduko ordezkariak elkar-tu zituen hitzorduak.



2027ra arteko biraren baitan eskaini zuten Aginagako emanaldia.

Aginaga dantza batean jarri zuen Korrontzik

"Mundua dantzan jarriko nuke Korrontzi banintza" emanaldia antolatu zuen Aginagako Eliza Zaharra Elkarguneak apirilaren 11n. Orio edota Vi-

llabonako dantzariekin batera, Orbeldikoak izan zituen bidelagun, Korrontzi Dantzan egitasmoaren 10. urtemugaren birako emanaldiak.



Emakumeen Etxeko hilaren 18ko emanaldiko uneetako bat.

"Filipa Balbina: Klown emakumeak historian", Emakumeen Etxean

"Filipa Balbina: Klown emakumeak historian" ikuskin-dokumentala antolatu zuen Usurbilgo Emakumeen Etxeak apirilaren 18an, Kale-

zarko Pelaioenean. Bea Larrañagak antzezturiko zenbait pailazo izan zituen ardatz emanaldiak, idatzi, argazki eta bideoek lagunduta.



Easo abesbatzako kideak Salbatore elizan izan ziren aurreko astean.

Easo abesbatzako ahots ederrek hartu zuten Salbatore eliza

Donostiako Easo Cum Jubilo abesbatzak kontzertua eskaini zuen hilaren 18an Salbatore elizan. 2003ko ikasturtean sortu zen, Esperientzia Gele-

tan izena emandako ikasle taldearekin. 2005ean, Easo Abesbatzak Musika Eskolako abesbatza moduan jarraitzeko aukera eskaini zion.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 · komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · ispiluak
 · dutxa-itxiturak eta irristailuak · barandak · kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Kima
 MASAJE LEKUA
 · KIROL MASAJEA
 · MASAJE TERAPEUTIKOA
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek deituta, hilaren 18an Donostian eginiko manifestazioa.

"Osasungintza publikoak arrisku egoeran segitzen du"

Osakidetzaren egiturazko arazoentzako benetako irtenbideak galdegiteko Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek antolatu eta 68 eragileek babesturiko manifestazioak egin zituzten larunbatean Osakidetzaren lurraldeko hiriburuetan; haietako bat, Donostian.

ARITZ LASARTE

Eskualde nahiz udalerrri ezberdinetako plataformak bildu zituen Gipuzkoako hiriburu manifestazioak; tartean, udalerrri hau barne hartzen duen Donostialdeko bilgunea. Osasungintza publikoa "hondatzen eta pribatizatzen" ari direla salatu zuten. "Osasunaren Euskal Ituna deiturikotik zortzi hilabetera, egiturazko aldaketarik ez dugu".

Horren hainbat adibide aipatu zituzten, Donostiako Bulebarrean hasi eta bertan amaituriko manifestazio ostean eginiko ekitaldian. "Urtean bost hilabetez murrizketak egiten jarraitzen dute, "kontingentzia planez" mozorrotuta, zerbitzuak itxiz, ordutegiak murriztuz, behar beste langilerik gabe, medikurik gabeko zentroak edo formatzen

ari diren medikuek artatuak. "Lehen mailako arreta gainezka dago. Osasun mentala abandonatua", profesionalak edota erabiltzaileak biltzen dituzten aipatu herri plataformen esanetan. Bizitzaren amaierako zaintza gutxietsia dagoela salatu zuten. Onartezintzat jo zituzten dauden itzarote-zerrendak; "astebete baino gehiago familia medikuntzan, eta urtea nabarmen gainditzen dute espezialitate batzuen hitzordua itxaroten". Horrez gain, profesionalen

"URTEAN BOST HILABETEZ MURRIZKETAK EGITEN JARRAITZEN DUTE"

"lan-baldintzek okerrera egiten jarraitzen dute" eta "Enplegu Publikoko Eskaintzek ez dute benetako enplegurik sortzen"; ondorioz, "sistemak gainezka egiten duenean, errezeta bera erabiltzen dute: aparteko ordu gehiago, plantillak indartu beharrean".

"Publikoa, unibertsala"

Iraungitako txertoen kasuekin gertatutakoa ere salatu zuten herri plataformok, "21 motatako txertoei eta Erakunde Sanitario Integratu (ESI) guz-

"EGITURAZKO ARAZOENTZAKO BENETAKO IRTENBIDEAK ESKATU ZITUZTEN"

tiei eragin baitiete. Horrek berresten du sailburua arazoaren larritasuna minimizatzen eta ezkutatzaren saiatu dela, eta, beraz, erantzukizun politikoak eskatzen ditugu, baita sailburuaren dimisioa ere".

Horregatik guztiagatik, "eredu horrek nahita ahultzen du publikoa negozio pribatua elikatzeke. Aurten, 500 milioi euro baino gehiago sektore pribatura joango dira.". Horren aurrean, "beste osasun bat defendatzen dugu. Publikoa, unibertsala eta doakoa, Lehen Mailako Arretari lehenetsia emango diona. Hurbilekoa, irisgarria eta gizatiarra. Prebentzioan eta osasunaren sustapenean oinarritua. Aurrez aurreko kontsultak nahi ditugu. Asistentzia-jarraitutasuna eta gutxienez 15 minutu pazienten bakoitzeko. Nahiko plantilla eta lan-baldintza duinak. Profesionalen eta herritarren benetako parte-hartzea, hizkuntza-eskubideak errespetatuz". Eusko Jaurlaritzaren osasun sailburuari zuzenduta, "Osakidetzaren egiturazko arazoentzako benetako irtenbideak" galdegin zizkionten, murrizketak eta pribatizazioa normalizatuko ez dituztenak. "Osasun publikoa guztiona da. Eta ez diegu utziko lapurtzen", ohartarazi zuten.

Mobilizazio gehiago

Osasungintza publikoak arrisku egoeran segitzen duela ohartarazi zuten, horregatik irten zirela beste behin manifestatzerara eta hala segiko dutela ere iragarri zuten. Astearte honetan, Donostia ospitale atarian deitua zuten elkarretaratzea, eskualde honetako ESIaren egoera salatzeke. Bestalde, gogoan izan, "Estatutu propio baten alde" Euskadiko Sendagileen Sindikatuek deituta, otsailean hasitako greba astean zikloak segida izango du apirilaren 27tik 30era.

NOAUA! K.E.-n bazkidetzeak saria dakar

NOAUA! Kultur Elkarteak bizirik segitzeko ezinbestekoa dituen bazkideak ditugu lerrotoako protagonistak.

ARITZ LASARTE

NOAUA! K.E. -ko kide izanda, elkartearen erabakietan eskuhartzeko eskubidea izango duzue, beharpenak elkartearen ekitaldietan eta garrantzitsuena, egitasmo honi bultzada emango diozue. Bazkidetzea kultur elkarteko egoitzan bideratu dezakezue edota noaua.eus web orrialdean, noaua.eus/bazkidetu/ helbidean. Bazkide izateak onura gehiago baditu; horien artean, bi. Batetik, iazko errenta aitortzeko garaia heldu den honetan, bazkidetzagatik hobaria jasotzeko aukera duzue. Bestalde, tarteka, hainbat zozketa egiten ditugu bazkideon artean.

Korrika eta Errigora

Segidan duzue, azkenaldian saritutako bazkide taldea. Martxoaren 25ean gure artetik igarotako 24. Korrikari lotutako produktuen zenbait lote zozketatu genituen. Hona

hemen, saritutako bazkideak: Olatz Goenaga Urbistondo, Luis Mari Bengoetxea Izeta, Kaxilda Iturralde Muguruza eta Iban Maritxalar Elizondo. Horrekin batera, Errigoraren "Eskuz Esku" kanpainako bi otar ere zozketatu genituen. Ainhoa Labaka Iribar (bere izenean Joseba Pellejero) eta Asier Makazaga Beristain izan ziren sarituak. Zorionak denei eta milesker kultur elkarte hau sostengatzeko egiten duzuen ahaleginagatik!

30 urte

Bide batez, gogoan izan; NOAUA! K.E.-k bat egin zuen beste behin, 24. Korrikak omen dutako Errigoraren udaberri hasierako "Eskuz Esku" kanpainarekin. Produktuak eskatu dituzuenok adi; maiatzaren 8an (16:30-19:30) eta 9an (09:30-12:30) egingo dugu banaketa, Udarregi ikastolako eraikin gorriko erdiko aretoan, kultur elkarte honen 30. urte-



Kaxilda Iturralde Muguruza, Korrikaren kamiseta eskuartearen duela.

mugaren atarian. Izan ere, hiru hamarkadako ibilbidea osatu du kultur elkarte honek. Maiatzean beteko dira 30 urte, 0. alea argitaratu zuenetik. 1996ko Sagardo Egunaren bueltan izan zen. Urtemuga hau ez da oharkabean igaroko. Xehetasun gehiago, aurrerago eskainiko dizkizuegu.

ZORIONAK ETA MILESKER KULTUR ELKARTE HAU SOSTENGATZEKO EGINDAKO AHALEGINAGATIK!



Joseba Pellejero Alkorta.




Olatz Goenaga Urbistondo.



Iban Maritxalar Elizondo.



Asier Makazaga Beristain.




Hirukoitza Sarda honetan hamahiru arrain mota daude. Mota bakoitzetik bina arrain aurkituko dituzu, batetik izan ezik. Salbuespeneko arrain mota hori hirukoiztuta dago. Zein da?

Non ote dira? Ibai honetan 11 amuarraín, 5 aingira eta 10 karramarro daude, eta denak hementxe aurkituko dituzu. Seinala itzazu.




10 karramarro




Handienetik txikienera

Ordена itzazu urpeko ontzi hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 8.



Bakoitzari berea

Lotu itsaski bakoitzari bere izena.



ALdea dago! Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira.




Sudokua



Bete itzazu hutsuneak URPEKO hitza osatzen duten hizkiak behar bezala ipiniz (U, R, P, E, K eta O). Gogoratu hizkiek behin agertu behar dutela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Margotu

Marrastu zure burua leiho batean, eta nahi duzuna bestean. Ondoren, margotu.



Erraustegiko langileak, Aldundia atarian

Asteotan Zubietako erraustegiko langileek lantoki inguruetan eginiko lan-baldintza duinen aldeko borroka Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza atarira lekuz aldatu zuten apirilaren 14an.

Zubietako erraustegiko langileen hilabeteotako eskakizunak ez dira bete; ondorioz, lan-baldintza duinen aldeko borrokan segitzen dute. Urtarrilaz geroztik lantoki atarian mobilizatu izan dira, elkarretaratzeez bidez nahiz Bugatiraino eginiko manifestazioekin. Bertan, Ekobal eta Ekondakin enpresak nahiz Gipuzkoako Foru Aldundia bizi duten egoeraren erantzuletzat jo izan dituzte. Haien oinarritzko eskaerak bete ahal izateko aldarrikapen ekintzak,

ordea, nonbait ez dira aski izan.

Konponbide eske

Ondorioz, hilaren 14an, lekuz aldatu zuten protestarako gunea; lantoki ataritik, Foru Aldundiak Donostiako Gipuzkoako plazan duen egoitza atarira lekuz aldatu zuten mobilizatzeko gunea. Izan ere, aurrez jakinarazi zuten, "badirudi ez dutela haien burua ikusten arduradun bezala eta ulertzen dugu Aldundia dela honen guztiaren



Zubietako erraustegiko langileak apirilaren 14an, Aldundiaren egoitza atarian.

arduraduna". Hala, "Ekobal, Ekondakin, Aldundia, konponbidea eta babesia orain!" aldarrirapean elkarretaratu ziren aipatu plazan iragan astean. Hilabeteotan salatutako egoera bera بازارatu zuten. "Gure osasuna bermatu!", oihukatu zuten sarritan, lan-baldintza duinak behin eta berriz galdegitearekin batera, alarma hotsen artean. Benetako toxikotasuna ez

dietela aitortzen salatu zuten. Hilaren 21ean, ordu eta toki berean bildu eta protesta egitekotan ziren berriz.

"BADIRUDI EZ DUTELA HAIEN BURUA IKUSTEN ARDURADUN BEZALA"

ATEAK ZABALIK jardunaldiak 2026

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

Apirilaren 25ean **10:00 - 11:30**

GOI-MAILAKO ZIKLOAK ETA ESPEZIALIZAZIOA

Apirilaren 23ean **17:00 - 18:45**

Apirilaren 25ean **11:30 - 13:15**

EMAN IZENA

EZAGUTU GAITZAZU:
eskola@lhzubieta.eus
 943 36 46 00

LANBIDE
 Zubieta
 ESKOLA



Usurbilgo Mugimendu Feministak aurten erailak izan diren emakumeak izan zituen gogoan aurreko larunbatean.

"Martxan jarraituko dugu denak aske izan arte!"

Urte hasieratik indarkeria matxistak jada hiru emakume hil dituela salatzeko, Usurbilgo Mugimendu Feministak elkarretaratze bat antolatu zuen aurreko larunbatean.

"Hirugarren emakumea erail du indarkeria matxistak Euskal Herrian. Nahikoa da! Autodefentsa feministaz erantzungo dugu" aldarriaren bueltan mobilizatu ziren aurreko larunbatean, Usurbilgo Mugimendu Feministak deitutako elkarretaratzean.

Hemen duzue, mobilizazio amaieran plazaraturiko adierazpenaren berri:

"Indarkeria matxistak emakume bat erail du Iruñean"

"Hamar egun besterik ez dira pasa eta berriz ere hemen gaude. Pasa den igandean, Iruñeako Sanduzelai auzoan emakume bat hil zen bere etxeko lehiotik ihes egiten ari zenean. Guk ez dugu inolako zalantzarik; Euskal Herrian 2026an indarkeria matxistak eraildako hirugarren emakumea da.

Usurbilgo Mugimendu Feministatik gure amorrua eta

mina adierazi nahi dugu, eta nola ez, senide eta lagunei gure maitasun eta babes osoa adierazi nahi diegu.

Nazkatuta eta amorratuta gaude, hamar egunetan Euskal Herrian bi eraiketa matxista eta beste eraiketa saikera bat izan dira.

Aski da! Noiz arte iraungo du honek? Euskal Herrian indarkeria matxistak emakumeak* emakume* izate hutsagatik erailtzen ditu!

Behin eta berriz esaten dugu indarkeria matxistak aurpegi ugari dituela, emakumeok* pairatzen dugun indarkeria egiturazkoa dela, sistema oso bat dagoela honen atzetik; zisheteropatriarkala, kapitalista, arrazista eta koloniala dena. Eta eraiketa guztiekin gertatzen den moduan, inoiz baino agerikoagoak dira emakumeok* zeharkatzen gaituzten indarkeria matxistak.

Izan ere, ondo dakigu indarkeria matxistak ez duela modu berean gurutzatzen gorputz bakoitza, eta argi dago arrazakeriak indarkeria areagotzen duela, emakume* migratu eta arrazializatuak sistematikoki babesgabe uztera arte. Erregularizazioaren menpekotasuna, eta baliabideetarako sarbiderakoa oztupoak ez dira kasualitatea: politika arrazisten ondorio zuzena dira.

Kasu honetan, berriro ere, ikusi dugu etxebizitza esku-bidea merkatu arrazista eta espekulatiboa elikatzeke nola erabili den. Eta guk argi dugu: etxebizitza duinik gabe, ez dago bizitza duinik; eta ez dago indarkeriatik ihes egiteko aukerarik. Prekaritateak ez du soilik pobrezia eragiten: arriskuan jartzen gaitu, eta kasu honetan, hil egin du.

Askotan salatzen dugu instituzioen erantzukizun falta, baina honetan irmoki salatzen

dugu ere haien ardura falta. Indarkeria matxistak ertz asko ditu eta emakumeok* askotariko prozesu eta erritmoak ditugu, baina nola da posible indarkeria matxista pairatzen duen emakume* batek etxebizitza duin bat bermaturik ez izatea? Non daude instituzioak funts putreak babestutako etxebizitzak erosten dituztenean? Emakumeak* behar bezala artatzea, baliabide guztiak haien esku jartzea, kasuen jarraipena egitea nahiz laguntza eta babesa ematea ere bada instituzio publikoen betebeharra eta emakumeak* haien erasotzaileekin bakarrik uztea ardugabekeria da.

Gizarte osoak du erantzukizuna honetan, baina batez ere zuek, gizonak; noiz arte jarraituko duzue beste aldera begira? Jakin badakigu, egiturazko arazoa dela indarkeria matxista baina badakigu ere ezinezkoa izango dela honekin bukatzea gizonen zuen anaitasun eta konplizitate sareekin apurtu arte, egitura sostengatzen duen pieza zarete.

Guztiok erreproduzitzen dugun matxismoak hiltzen du: eguneroko keinuetan, hitzetan eta siltasunetan txertatuta dagoen matxismoak hiltzen du.

Komunitatearen arduragabekeriak hiltzen du, begirada beste aldera desbideratzeak, errealitate hau ukatzeak edo indarkeria normalizatzeak hiltzen du.

Bakoitzak bere lekutik, badugu zer egin. Gu nazkatutik gaude. Horregatik, beste behin ere, ozen esaten dugu: feministok autodefentsan jarraituko dugu. Gure artean aliantzak sortzen, gune seguruak eraikitzen, kolektibotasunetik politika egiten, behar den bezain bestetan salatzen eta kaleak hartzen. Egungo egoera irauliko dugu denok aske bizi ahal izateko. Erasorik ez erantzunik gabe!

Martxan jarraituko dugu denak aske izan arte! Gora borroka feminista!"



Larunbat gauean, Espainiako Errege Kopako finalean, goraino bete zen Garagardo Azoka.

Herri giro bizia, pasa den asteburuko Garagardo Azokan

Esker ona adierazi nahi izan die Usurbil Kirol Elkarteak iragan asteko Garagardo Azokaren alde egindakoei.

ARITZ LASARTE

Balantze egunak honako hauek Usurbil Kirol Elkartearentzat, apirilaren 16tik 19ra frontoian Garagardo Azoka antolatu ostean. Beste ezer baino lehen, eskertza mezua helarazi nahi izan die ekimen hau antolatzea ahalbidetu duten guztiei; "herriarrei, boluntarioei, udalerriari eta babesleei, azken egunotan ospatutako Garagardo Azoka arrakastatsuegatik. Lau egunez luzatu den ekimenak kirola, musika eta aisialdia uztartu ditu, giro bikaina sortuz eta parte-hartze handia lortuz". Elkarlana jo dute gako nagusitzat, azoka hau egin ahal izateko. "Horrelakorik berriz egin behar bada, zuek gabe ezingo da izan", nabarmendu dute Usurbil K.E.-tik.

Bera Bera taldeko Urdaigako entrenatzaile Jon Begi-

ristain Agirre zen irekitzeko azoka, baina ezin izan zuen bertaratu. Bidasoa Irun taldeko Eneko Furundarena Maizek abiarazi zuen ekimena, nola ez, lehenengo garagardo tragoarekin topa eginez. Azokaren antolakuntza taldearen lana eta klubean dabilzanen urte osoko ahalegina eskertu eta herriko futbol taldeak haiei emaitzengatik zoriontzarekin batera, belaunaldi gazteena hartu zuen ahotan. "Han, atzean jolasten ari diren haur eta gazte guztiei animatu eskubaloira gerturatzea. Azkenean, klubak izan dezakeen albiste onena, behetik jendea datorrela ikustea da", nabarmendu zuen.

Parte hartzeko deia

Ildo beretik mintzatu zen hasiera ekitaldian, Usurbil K.E.-ren kirol arloko zuzendari

Julen Nazabal ere. Multikirolen eredia defendatzearekin batera, eskubaloia probatzera deitu zuen. Kirol jarduerekin egin beharrekoa, "probatu eta gero erabakiko duzue" horixe zela zioen.

Usurbil K.E.-ren zuzendari-tza berritu zuten iaz. "Klubaren proiektuaren iparroratza ondo lerrotatua dago; herritik, herriarekin eta herriarentzat izan behar da halabeharrez. Horretarako, erakunde publikoaren laguntzaz gain, herriar guztiona, komertzioena, enpresena oso estimatua eta ongietorria izango da". Hemen, eskubaloit taldeen bilgunetik plazaratu duten oharra:

Usurbil K.E.-ren eskertza

"Bihotz-bihotzez idazten dizkizuegu lerrook, azken egunotan bizi izan dugun Garagardo Azoka berezi eta ahaztezinagatik eskerrak emateko.

Ostegunean eman genion hasiera azokari, eta ezin modu hobean gainera: Eneko Furundarena, Bidasoako jokalaria usurbildarrak, hasiera eman zion harrotasunez. Eta Anuk eta Eleneren kontzertua izan genuen ondoren. Ostiralean ere musikak hartu zuen lekuko, Lua Matheus eta Rodrigoren emanaldiarekin, beste

behin ere herritarren elkargune bilakatu zen frontoia. Larunbata egun handia izan zen. Lehenik, 1. nazional mailako Usurbil KE eta Barakaldoren arteko partida ikusi ahal izan genuen. Eta ondoren, askok irrikaz espero genuen unea iritsi zen: Atletico Madril eta Realaren arteko final handia. Emozioz beteriko partida izan zen, tentsioz eta ilusioz bizi-takoa, eta amaiera ezin zirraragarriagoa izan zuen, penaltietan Realaren garaipenarekin. Une ahaztezinak bizi izan genituen elkarrekin. Igandean, azken ukitua eman genion azokari mus txapelketarekin. Giro ederrean jokaturako lehia izan zen, eta azkenean, Jon Ander Peña eta Ander Imaz pilotariek eskuratu zuten garaipena.

Hori guztia ez litzateke posible izango zuek gabe. Horregatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Usurbilgo herriari eta usurbildar guztiei, parte hartzeagatik eta sortutako giroagatik. Bolondres aritu zareten guztiei, zuen lan eta dedikazioagatik. Usurbilgo Udalari, emandako babesagatik. Herriko ostalariei eta babesleei, ekimen hau aurrera eramaten laguntzeagatik.

Zuen guztien artean egin dugu posible Garagardo Azoka hau, eta beste behin erakutsi dugu herri gisa zer egiteko gai garen. Orain, balantzea egiteko garaia dugu eta zuen ekarpenak jaso ditugu eta jasotzen jarraituko dugu.

Horrelakorik berriz egin behar bada, zuek gabe ezingo da izan.

Mila esker guztioi. Bihotzez, Usurbil Kirol Elkarteak".

"HORI GUZTIA EZ LITZATEKE POSIBLE IZANGO ZUEK GABE. ESKERRIK BEROENAK EMAN NAHI DIZKIZUEGU"



Jai giroa lehertu zen Garagardo Azokan, Realak Errege Kopa irabazitako uanean.



Mus txapelketak dozena bat mahai hartu zituen, azokaren azken bazkalostean.



Bidasoa Iruneko jokalaria Eneko Furundarena Maizek abiarazi zuen azoka.



Anuk Harreguyk eta Elene Alustizak girotu zuten azokaren irekiera.



Txarteldegian joan etorri ugari izan zen azokako lau egunetan.



Hainbat boluntarioren arteko auzolanak ahalbideratu du azoka antolatzea.



NOAUA!ren Errege Kopako porran, bi ordu irabazi zituen Eneko Furundarenak.



Garagardo Azoka amaitzeko eginiko mus txapelketako irabazleak.



Maialen Lujanbiok eta Andoni Egaña abestuko dute apirilaren 26ko ibilaldian.

Bertso-ibilaldia, sagardoaren paisaia barrena

Urtean bitan, bederen, bertso-ibilaldia antolatu ohi dute Alkartasuna Kooperatibak eta Sagardoaren Unibertsitateak sagardoaren kulturaren eta paisaia barrena; oraingo honetan, igandean, apirilaren 26an, Aginagan eta Txokoalden barrena, Jakoba Errekondoren argibideekin eta Maialen Lujanbio zein Andoni Egaña bertsoariekin. Aginagako plazatik abiatuko da 10:00etan. 650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren bisita gidatuen baitan eskainiko den ibilaldirako izena aurrez eman beharko da, doan.

Apirilak 24, ostirala

- 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Apirilak 25, larunbata

- 11:00-12:45 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Salbatore eliza.

Apirilak 26, igandea

- 10:00-12:30 Bertso ibilaldia Aginagako eta Txokoaldeko sagastietan barrena, Aginagako plazatik abiatuta, Jakoba Errekondo, Maialen Lujanbio zein Andoni Egaña bertsoariekin. Informazio gehiago eta erreserbak: 650usurbilbizi.eus

KzGunea datozen ikastaroak

Apirilaren 30era arte goizez irekiko dute KzGunea, 09:00-13:00 artean. Hona hemen, eskaniko dituzten ikastaro presentzialen berri:

- Apirilak 22-24, 09:00-11:00 "LibreOffice Impress. Zure aurkezpenak sortu".
- Apirilak 27-30, 09:00-11:00 "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu".
- Maiatzak 4-8, 18:00-20:00 "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

- Maiatzak 11, 18:00-20:00 "Google Translate. Testuak eta web orriak itzuli".
- Maiatzak 12-15, 16:00-18:00 "PC, teklatura eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu".
- Maiatzak 18-29, 16:00-18:00 "Oinarritzko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi".

Informazio gehiagorako:

943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

Beste bi hitzordu, liburutegian

Sutegi udal liburutegiak antolatutako hurrengo hitzorduen berri duzue lerrootan:

Apirilak 28, asteartea

- 18:00 "Liburua lagun, ipuina kontakizun" saio berezia Ixabel Agirresaroberen eskutik; haurrentzat eta beren guraso edo laguntzaileentzat. Iraupena 50 minutu inguru.

Maiatzak 5, asteartea

- 18:00 Irakurketa-solasaldia Sutegi udal liburutegian, 9-10 urtetik gorako haur eta gaztetxoentzat. "Mintzagai izan-

go dugun liburua, Mariasun Landaren Txan Fantasma, euskal haur literaturan mugarri den idazlearen liburuetako bat: triste dabil gure Karmentxu, liburuiko protagonista, eta lagun bat egingo du... Honatx, informazio gehiago: <https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak/txan-fantasma-2>). Txan Fantasma liburuaren aleak jada eskuragarri ditugu Liburutegian".

Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

Udajolasen izena emateko azken egunak

Apirilaren 27ra arte zabalik segiko du Udajolas aisialdi ekimenean izen-emateko epealdiak. Aurtengoa, uztailearen 6tik 30era egingo da, astelehenetik ostiralera, 9:30-13:30 artean (txangoak tarteko, ostegunetan 16:30ak arte). Ohi bezala, 4-12 urte arteko zuzenduriko eskaintza izango da, HH3-LH6 mailetan dabil-tzanentzat. %50-90 arteko hobariak eskuratu ahalko dira. Izena online bidera dezakezue esteka honetan: <https://labur.eus/ekpgerlm>

Udako kirol jardueretarako izen-ematea ixtear

Usurbilgo Udalak uztaileko kirol ikastaro hainbat antolatu ditu nerabe, gazte, heldu eta emakumeentzat.

Hilaren 27ra arte zabalik izango da izen-emateko epea lotura honetan: <https://forms.gle/tjCgqGBKuxdT23Nc9>

Informazio gehiagorako:

- 943 37 24 98
- kirola@usurbil.eus.

"Gipuzkoako Organoak plazara" zikloko emanaldia

Andoni Sierrak zuzenduriko Oreretako Andra Mari Abesbatza Salbatore elizan arituko da ostiral honetan, 20:00etan, Ignacio Arakistain organo-jolearekin batera. Itzaletik argira: emakumea organoan izeneko kontzertua eskainiko dute 'Gipuzkoako Organoak Plazara' zikloaren baitan. Hitzordu honek "Gipuzkoako ondare organistikoa eta organo errepertorioa (tartean, Salbatore elizakoa) publikoari hurbiltzea du helburu, askotariko jarduerak dituen ziklo moldakor baten bidez".

Genozidioaren aurka mobilizatzeko deia

Gernika Palestina Herri Eki-menak "Gernikaren herritik genozidiorik ez! Gerrarik ez!" aldarripean, mobilizazio nazionala deitu du larunbat hoetarako Donostian. 17:30ean abiatuko da Alderdi Ederretik. Hitzordua iragartzeko agerraldian Usurbilgo Mundualdiko protagonistek hartu zuten parte; Palestinako Gazako Sol Band-eko kideek.



Usurbildar ugari joan zen Sevillara, Reala animatzera. Usurbil Futbol Taldeak bidali zigun familia argazki hau.

Zubietatik abiatu zen Errege Kopako espedizioa

Marea txuri-urdinak agindu du egunotan, Realaren Errege Kopako finala tarteko, baita gure artean ere. Usurbil K.E.-ren Garagardo Azokan zuzenean eskaini zuten finala. Festa giroa lehertu zen Realak garaipena erdietsi ostean.

Bestalde, Zubietan jendetzak kalejiran agurtu zuen taldea Sevillara abiatu aurretik eta Errege Koparekin abiapuntura itzultitakoan.

Herritar kopuru zenbaezina joan zen baita Sevillako finalera. Usurbil F.T.-k herri ar-

gazki jendetsua atera zuen zaletu txuri-urdinen eremuan. Aipatu klubetik hainbat zaletu bertaratu ezinik geratu zirela ohartarazi zuten. Bestalde, Xabier Lizartza herrikidea zauritu zuen Cartuja futbol zelaira sartzerakoan, jende

pilaketak aztoraturiko zaldietako batek. Polziarengana laguntza eske joan eta jasotako erantzuna (bertatik alde egiteko eskatu zioten) salatu zuen hedabide batean.

"MAREA TXURI-URDINAK AGINDU DU EGUNOTAN, ERREGE KOPAKO FINALA TARTEKO"



Marea txuri-urdina, Reala Errege Koparekin Zubietara heldu zain.



Realeko jokalariai Errege Koparekin Zubietara heldutako unea.



Aginagak ere herri ordezkartza izan zuen Sevillan.



Herrikide bat zauritua, Errege Kopako finala ikustera zihoala.



Markel Korta Fernandezek bi domina eskuratu ditu eskaladako Espainiako Txapelketan. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Ez nuen espero blokeko eskaladan lehenengo gelditzea"

MARKEL KORTA FERNANDEZ ESKALATZAILEA

Markel Kortak (Usurbil, 2012) judoaren eta eskaladaren artean aukeratu behar izan zuen. Duela hiru aste, Espainiako Kopako blokeko proban txapeldua izan zen.

Zein eskalada mota egiten duzu?

Nik egiten dudana kirol eskalada deitzen da, rokodromoe-tako eskalada da. Entrenamendu gehienak rokodromoe-tan egiten ditut, eta arroka oporretara noanean. Hiru kirol eskalada modalitate daude: abiadura eskalada, 15 metroko paretara bat ahalik eta azkarren igotzean datza eta heldulekuak beti toki berdinean daude jarrita; zailtasun eskalada, 20 metroko paretara batean erresistentzia lantzen da; eta azkenik, niri gehien gustatzen zaidana, bloke eskalada; altura txikiagoko eskalada, baina pauso leherkorragokoa. Nik bakarrik zailtasun eta bloke modalitateak egiten ditut.

Duela gutxi domina bat irabazi duzu Espainiako txapelketan. Zer sentiarazten dizu garaipen horrek?

Aukerak ikusten nituen irabazteko, baina ez nuen espero blokeko eskaladan lehenengo postuan gelditzea. Momentuan oso pozik jarri nintzen. Lehenengo egunetan pozik nengoen, baina egun

batzuk pasatzean gertatuko ez bazen bezala da.

Zenbatgarren domina izan zen? Eta Euskal Herriko txapelketetan baten bat duzu?

Espainiako txapelketetan lortzen dudana hirugarrena. Euskal Herriko txapelketan 2024. urtean hirugarren gelditu

"ESPAINIAKO TXAPELKETA ONDO EGIN DUDANEZ, EUSKAL SELEKZIOAN POSTUA IZANGO DUDALA USTE DUT"

"KIROLETAKO PSIKOLOGOAREKIN TEKNIKA BATZUK LANDU DITUGU, ETA ERLAXATU EGITEN NAIZ TXAPELKETEN AURRETIK"

nintzen bai blokeko eskaladan, bai zailtasuneko eskaladan, eta 2025ean, blokekoan lehenengo gelditu nintzen eta zailtasunean bigarren. Euskal Herriko bloke txapelketa maiaztaren 10ean da.

Zer espero duzu lortzea blokeko txapelketa horretan?

Irabazteko aukerak dauzkadala uste dut. Hala ere, badaogo jendea oso indartsu dagoena, eta orduan ez ditut espektatiba gehiegirik eduki nahi. Baina nahiko lasai joango naiz. Espainiako txapelketa ondo egin dudanez, Euskal Selektzioan postua izango dudala uste dut.

Presioa sentitzen duzu txapelketetan?

Espainiako txapelketan lehenengo aldiz podiumean gelditu ostean, hurrengo txapelketetara presioarekin joaten nintzen, baina alderdi hori landu dut eta ia ez dut presiorik. Agian orain, lasaiago noa. Izan ere, txapelketa ondo egin dudanez, selektzioan egoteko aukera dut.

Nola landu duzu presio hori kentzea?

Orain, kiroleko psikologo batengana noa, eta horrelako gauzak lantzen ditugu. Finaletan, lau minutu izaten dituzu eta ikusle guztiak zuri begira egoten dira. Hori nahiko zaila izaten da gestionatzea.

Lau minutu horietarako psikologoak teknikaren bat eman al dizu?

Teknika batzuk landu ditugu, eta horrekin erlaxatu egiten naiz. Arnasketa batzuk egiten ditut, eta gero beti errutina bera egiten dut eskalatzera atera aurretik. Horrek, kontzentratzen eta erlaxatzen laguntzen dit. Esaldi bat esaten diot nire buruari, eta gero keinu fisiko bat.

Eskaladatik bizi al daiteke?

Bizitza bada, baina nahiko zaila da.

"Guk maila bakoitzeko bi pilotari ditugu"

JOXE ANTONIO ERRASTI PAGAZPE PILOTA ELKARTEA

Herriko kirol taldeen serieari jarraituz, gaurkoan Pagazpe Pilota Kirol Elkarteko Joxe Antonio Errasti entrenatzailea elkarrizketatu dugu herriko pilotariak zein diren ezagutzeko. Oraingo honetan ere, jubenil mailako bi pilotarien eta haien denboraldiaren inguruan hitz egin dugu.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
Zenbat pilotari ditu Pagazpe Pilota Kirol Elkarateak jubenil mailan?

Herriko bi pilotari jubenil ditugu momentu honetan, eta eskuz bakarrik jolasten dute. Aimar Alejo eta Enaitz Errasti dira haien izenak.

Zer moduz joan da denboraldia?

Urte osoan zehar ibili dira lehiatzen. Binakakoan, Errasti eta Bergarako jokalaririk finalerdietara iritsi ziren, eta Alejo eta bere bikotea ligaxkan kanporatuak izan ziren. Alejo Adunako batekin jolasten du eta Errastik orain arte Bergarako batekin jolastu izan du.

Zein erronka gelditzen zaizkie denboraldi amaierara arte?

Herriartekoan izena eman dute, eta jolastu beharra daukate. Maiatzean hasiko dira jolasten, eta kanporaketak direnez, horren arabera irauengo dute txapelketan. Herriartekoan kadeteek, jubenilek eta seniorrek jolasten dute. Orduan, aurkariak kanporatzen badituzte, beste kanporaketa bat izango dute. Aurreko urtean helburua herriartekora aurkeztea zen.

Izan ere, hamasei urte ziren aurkezten ez zirela, eta aurten ere aurkeztea zen helburua. Aurkariak asko esango du.



Jubenil mailako bi pilotariak: ezkerrean, Enaitz Errasti; eskuinean, Aimar Alejo.

Kontuan izan, txapeldun edo txapeldunordearen aurka jokatuz behar baldin baduzu zaila izango dela.

Gainera, herri gehienek ordezkioak daukate, eta guk maila bakoitzeko bakarrik bi pilotari ditugu.

"IAZ BEZALA, AURTEN ERE HERRIARTEKORA AURKEZTEA ZEN HELBURUA"

Usurbil, herriarteko eskuzko pilota txapelketan

Usurbilek Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan parte hartuko du aurten ere. Iaz bueltatu ziren usurbildarrak txapelketa honetan parte hartzera, 16 urtetan parte hartu gabe ibili ondoren.

Hainbat modalitate daude txapelketa honetan parte hartzeko: eskupilotan, larruzko paletan, pala motzean, eta gomazko palan. Iaz, zesta puntako txapelketa ere izan zen, baina bi herrik soilik izena eman dutenez, ez egitea erabaki dute. Usurbilek eskuzko modalitatean jolastuko du.

Izenak dioen bezala, herriko antolatutako txapelketa da, eta hiru mailatan lehiatzen dira: kadete mailan, jubenil mailan eta senior mailan. Usurbildik, maila bakoitzean bi pilotarik jolastuko dute.

Usurbildarrek oraindik ez dakite zein izango duten aurkari txapelketan, eta aurkariaren arabera errazagoa edo zailagoa izango dute aurrera jarraitu ahal izateko.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
· PLATER KOMBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
PARRIKAZI
JATEXEA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

Prestakuntza saio gehiago, Beterri-Buruntza mankomunitatean

“Parekatu” izeneko atzerriko ikasketa eta formakuntza-ibilbideen homologazioarekin laguntzeko doako prestakuntza saioak antolatu ditu Beterri-Buruntza mankomunitateak.


Prozesu horri buruzko informazioa eta orientazioa eskainiko ditu Beterri Buruntza mankomunitateak Bidez-Bidez elkarteko aditu baten eskutik, “aurrez aurreko bi orduko tailerren eta aukerako 30 minutuko banakako aholkularitzaren bidez”.

Beterri-Buruntzan bizi eta ikasketak atzerrian egindakoei zuzendurikoak izango dira saioak. Tailerrotarako izena esteka honen bidez eman daiteke: <https://forms.gle/e49qNCeFvX78ffpn7>.

Enpresa kudeaketarako tailerrak
Bestalde, "enpresa-kudeaketa" ikastaroa antolatu du Beterri Buruntzak, "persona ekintzaile eta mikroenpresetako enpresariarentzat. Helburua parte-hartzaileei ideia/enpresa inguruko hausnarketa eta negozioen kudeaketa eraginkorra egiteko erremintak ematea da". Tresna praktikoak eskainiko dituzte, "zure negozioa erraz martxan jartzeko".

Saioak:

- Maiatzak 6: "Ekiten ari naiz. Hutsetik hasi edo jadanik abian



Enpresa kudeaketarako tailerrak eskainiko dira maiatzean eta ekainean.

- dagoen negozio bat hartu. Ekiteko gakoak eta laguntzak".
- Maiatzak 13: "Ideiatik aukerara: bideragarritasun plana".
- Maiatzak 20: "Merkatuaren azterketa eta marketin ekintzak nire bezeroarengana iristeko".
- Maiatzak 27: "Nire negozioaren zenbakiak: Finantzakerraz!".
- Ekainak 3: "Negozioaren alderdi juridiko nagusiak".

- Ekainak 10: "Negozioaren zerga betebeharrak".
 - Ekainak 17: "Zer dakar autonomo izateak? Ditudan betebeharrak eta eskubideak".
- Tailer guztiak presentzialak izango dira eta Urnietako Pintore kalea 3an eskainiko dira, 9:30-13:30 artean.
- Informazio gehiago: ekintzaitzeta@beterriburuntza.eus
943 244 523.

Handienetik txikienera

Ordena itzazu urpeko ontzi hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 8.

Hirukoitza Sarda honetan hamahiru arrain mota aurkituko dituzu, batetik izan ezik. Salbuespeneko arrain mota hori hirukoitzuta dago. Zein da?

Non ote dira? Ibai honetan 11 amuarrain, 5 aingira eta 10 karramarro daude, eta denak hementxe aurkituko dituzu. Seinala itzazu.

Bakoitzari berea

Lotu itsaski bakoitzari bere izena.

ALdea dago! Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira.

SUDOKUA

U	R	O	E	P	K
E	K	P	R	O	U
R	U	K	P	E	O
P	O	E	U	K	R
K	P	R	O	U	E
O	E	U	K	R	P

Bete itzazu hutsuneak URPEKO hitza osatzen duten hizkiak behar bezala ipinitz (U, R, P, E, K eta O). Gogoratu hizkiek behin agertu behar dutela letra, zutabe eta area bakoitzeko.

Margotu Marraztu zure burua leiho batean, eta nahi duzuna bestean. Ondoren, margotu.

'Plazan Bazan' 14/15. orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

EROSI

HILDAKOAK



Javi Pariente Alonso
67 urterekin hil zen,
Kalezarren.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragak berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

Sukaldeko laguntzaile lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. 688676540

BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

Pilota Usurbilen

Apirilak 23, osteguna. 19:15

- Alebinak binaka 3. Mailan: Pagazpe-Goierri
- Infantilak binaka 3. Mailan: Pagazpe 2-Urnieta

Apirilak 24, ostirala. 17:45

- Infantilak binaka 2. Mailan: Pagazpe-Hernani 3
- Jubenilak 4 t'erdiko txapelketa, 2. Mailan: Pagazpe (Alejo)-Lapke
- Jubenilak 4 t'erdiko, 1. Mailan: Pagazpe (Aburuza)-Oteiza
- Pagazpe (Errasti)-Behar Zana

Eskubaloia Usurbilen

Apirilak 25, larunbata

- 11:00 Senior neskak: Urbil-Usurbil K.E.-Urola E.K.
- 16:00 Kadete neskak: Cortes Usurbil K.E.-Bidasoia Irun

Apirilak 26, igandea

- Benjaminen eta alebinen topaketa.

Garagardo Azokako errifak:

- Mariskada: 1747.
- Usurbil K.E.-ren eta herriko kirolari ezagunen kamisetak: 4055, 2551, 407, 1353.

Ibai-Ondo Backyarden
3. edizioa, martxan

Ibai-Ondo Backyard erronkaren antolatzaileek zehaztu dute 2027ko hirugarren edizioa noiz jokatuko den: martxoaren 20an hasiko da. Abenduan irekiko da izen-ematea, baina oraindik ez dute datarik zehaztu. Zirkuitua ere berdina izango da. Santueneko frontoia izango da ekimenaren hasiera eta amaiera lekua, baita korrikalariek deskantsatzeko gunea ere. Informazio gehiago, ibaiondobyakard.eus atarian.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldetgia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaituz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 23

USURBIL "Itzalen Tektonika" literatura emanaldia

Liburuaren Egunean, 'Itzalen Tektonika' emanaldia. Itxaro Borda eta Ibon RGren eskutik. 18:30 Udal liburutegian.

OSTIRALA 24

USURBIL Sareren mobilizazioa

20:00 Mikel Laboa plazan.

LARUNBATA 25

USURBIL 14. Dantza Eguna

Orbeldi Dantza Taldearen eskutik. *Egun osoz (ikus aldameneko albistea).*

IGANDEA 26

AGINAGA Bertso-ibilaldia sagastietan barrena

Gidaria: Jakoba Errekondo. Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña. 10:00 Aginagan.

USURBIL Kantu-jira

Hilabete honetan igandearekin aterako dira. 12:00 Mikel Laboa plazan.



Dantza Eguna goiz partean abiatuko da Dantzari Txikiko ekitaldiekin.

Dantza Egunaren edizio berri bat

Larunbat honetan ospatuko da XIV. Dantza Eguna. Orbeldik ekitaldi ugari iragarri ditu eguerdian hasi eta gauko ordu txikiak bitartean.

XIV. Dantza Eguna

7. Dantzari Txiki: Talde gonbidatuak: Getariako Gure Txeru, Zarauzko Jalgi eta Lezoko Murixka.

- 11:30 Kalejira udaletxetik abiatuta.
- 13:00 Ekitaldi nagusia frontoian.

• 14:30 Herri bazkaria Askatasuna plazan. Oharra: otordurako txartelak Artzabalen eta Lizardin erosi zitezkeen apirilaren 21era arte.

- 17:00 Harkaitz Allur eta Maddalen Arzallus trikitilariak Artzabalen.
- 22:00 "Aitaren Gutuna" ikus-kizuna frontoian.
- Ondoren, Iratzar erromeria Mikel Laboa plazan.
- Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.
- Laguntzailea: Udala.

Kantu-jira, honakoan igande partean

Hilabeteko azken larunbatean aritzen dira kantari. Hilabete honetan ordea, igandera atzeratu dute kantu saioa. "Animatu zaitezte gurekin batera herria alaitzera", hortxe Usurbilgo Kantu Taldearen gonbita. Igandean, eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Bisita gidatuak

Apirilak 24, ostirala

- 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Apirilak 25, larunbata

- 11:00-12:45 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Salbatore eliza.

Apirilak 26, igandea

- 10:00-12:30 Usurbilgo sagardo kultura: bertso ibilaldia Aginagako eta Txokoaldeko sagastietan barrena. Informazioa eta erreserbak: 650usurbilbizi.eus

Ixabel Agirresarobe Sutegi udal liburutegian

Datorren asteartean, hilak 28, Ixabel Agirresarobek 'Liburua lagun, ipuina kontakizun' saio berezia eskainiko du udal liburutegian. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta haurrentzat eta beren guraso edo laguntzaileentzat izango da.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ARTZABAL
BASERRIA • JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

• EGUNEKO MENUA
• KARTA
• RAZIOAK
• HANBURGESAK
• BOKATAK

Otar-Goxo
Elkagariak
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

USURBILGO HAUR ESKOLA 2026-2027 MATRIKULAZIOA



0-2 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2025 eta 2026 urteetan jaiotako haurrei zuzenduta

ATE IREKIAK: apirilaren 21ean, 17:30ean

Izena emateko epea: apirilaren 20tik maiatzaren 8ra
Izena emateko lekua: Udarregi ikastolan (Gernika ibilbidea 11)
Izena emateko ordutegia: 08:15-12:00

Ikasturtea hasita, haur eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza bermatu.


Informazio gehiago: 943 36 12 16 - haureskola@udarregi.eus



Usurbilgo Udala

UDAKO KIROL ETA AISIALDI JARDUERAK HAUR ZEIN HELDUENTZAT 2026

Izena emateko epea: apirilaren 16tik 27ra (biak barne)



udajolas

HH3-LH6 urte bitarteko haur eta gaztetxoei
zuzendutako euskarazko udalekua



KIROL JARDUERAK

Aretoko ikastaroak haur, gazte eta
helduentzat, uztailean

Oharrak:

- Ezingo da udalak ordutegi berdinean antolatzen dituen bi jarduera desberdinetan izena eman.
- Zerbitzuen zentzuzko erabilera bermatze aldera, haur guztien asistentzia datuak jasoko dira.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Udajolas: elkartea@noaua.eus / 688 807 336 · Kiroldegiko ikastaroak: kirola@usurbil.eus / 943 37 24 98



Usurbilgo Udala